

Apirilaren 21ean, unibertsitate masterretako eta erdi-presentzialeko hezkuntza graduetakoko informazio saioak Eskoriatza eta Aretxabaletako campusetan

2016/04/04

Apirilaren 21ean, ostegunez, Hezkuntza unibertsitate masterreko eta erdi-presentzialeko graduei buruzko informazio saioak egingo dira Eskoriatzako eta Aretxabaletako campusetan. Eskoriatzan egingo dira unibertsitate masterrei buruzko informazio saioak, eta Aretxabaletan, aldiz, hezkuntza gradu erdi-presentzial buruzkoak. Saio guztiak hasiko dira 18:00etan eta parte hartu ahal izateko, aldezturik izena eman behar da Internetez. Interesatuak web orri honetan eman behar dute izena: www.mondragon.edu/profesionalak/informaziosaiok/

Parte hartzaileak taldeetan antolatuko dira. Eskoriatzan, elkartuko dira, talde txikietan, masterretan interesatuta daudenak eta, Aretxabaletan, ostera, hezkuntza graduak modalitate erdi-presentzialean egin nahi dituztenak.

Eskoriatzako campusa

Hiru masterrei buruzko informazio saioak egingo dira:

- Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet).
- Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM).

Aretxabaletako campusa

Modalitate-erdi presentzialean eskaintzen diren hurrengo ikastaroei buruzko informazioa emango da:

- Hezkuntza graduak online.
- Hezkuntzan beste gradu bat edo beste aipamen bat.
- Irakasleentzako gradurako egokitze kurtsoa.



Aretxabaletako campusean iaz egindako informazio saioetako bat.